



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## HAURTZARO HAUR ESKOLA 2021-22



Vitoria-Gasteiz  
Hiri Hezitzailea  
Ciudad Educadora  
HHESen Hiri Koordinatzailea  
Ciudad Coordinadora de la RECE

# HAURTZARO UDAL HAUR-ESKOLAKO COVID-19AREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA 2021-2022 IKASTURTEA.

2021eko urriaren 15ean



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## HAURTZARO HAUR ESKOLA 2021-22



### SARRERA

Egungo egoera epidemiologikoa, txertaketa-kanpainaren bilakaera eta 2020-2021 ikasturtean Udal Haur Eskolen sarean bizitakoa kontuan hartuta, hauek dira 2021-2022 ikasturterako aurkezten ditugun neurriak.

### KONTUAN HARTUTAKO DOKUMENTUAK:

- Guía de actuación ante la aparición de casos de COVID-19 en centros educativos. Gobierno de España (14/04/2021)  
[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia\\_actuacion\\_centros\\_educativos.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia_actuacion_centros_educativos.pdf)
- Preguntas y respuestas sobre la vuelta al cole. Gobierno de España (27/04/2021)  
[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/2021\\_04\\_27\\_Preguntas\\_y\\_respuestas\\_sobre\\_la\\_vuelta\\_al\\_cole.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/2021_04_27_Preguntas_y_respuestas_sobre_la_vuelta_al_cole.pdf)
- Medidas de Prevención e Higiene y Promoción de la Salud frente a COVID-19 para centros educativos en el curso 2021-2022. Gobierno de España (29/06/2021)  
[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Medidas\\_centros\\_educativos\\_Curso\\_2021\\_2022.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Medidas_centros_educativos_Curso_2021_2022.pdf)
- Eskola-jarduera eta koronabirusa. 2021-2022 ikasturtea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila  
<https://www.euskadi.eus/informacion-sobre-el-coronavirus/web01-s2hhome/es/>
- COVID-19ren aurrean jarduteko orokorra ikastetxeetan, 2021-2022 ikasturtean. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2021-08-25)  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa\\_coronavirus/es\\_def/adjuantos/2021\\_2022/2021\\_08\\_25\\_protocolo\\_general\\_2021\\_2022\\_c.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/koronavirusa_coronavirus/es_def/adjuantos/2021_2022/2021_08_25_protocolo_general_2021_2022_c.pdf)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## HAURTZARO HAUR ESKOLA 2021-22



### 1.- OINARRIZKO PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK

#### 1.1. SARRERAK ETA IRTEERAK

1. Eskolan ez da onartuko 37° C-tik gorako tenperatura duen edozein pertsona (haurra, senitartekoa edo laguntzailea, hezitzailea eta zerbitzuetako langilea). 37° C-tik gorako tenperatura badu, osasun-agintariek ezarritako jarraibideei jarraituko zaie.
2. Helduen arteko elkarrekintzetan, 1,2 metroko pertsonarteko distantzia mantenduko da eskolaren barruan
3. Eskolako sarrera guztietan gel hidroalkoholikoa egongo da eta eskuak garbitu beharko dira ikastetxera sartu aurretik
4. Geletan sartzean umeen tenperatura kontrolatuko da urruneko termometro bidez. **Ez da onartuko 37° C baino gehiagoko tenperaturarik.**
5. Ez da eskolara joango COVID-19 diagnostikoaren ondorioz isolamenduan dagoen pertsonarik (haurra, senitartekoa edo laguntzailea, hezitzailea eta zerbitzuetako langilea).
6. Haurren laguntza guraso/laguntzaile bati mugatuko zaio.
7. Ez da baimenduko eskola-esparruaren barruan kotxetxoak edo paseatzeko aulkiak uztea. Salbuespenezko egoerak baloratuko dira
8. Familiek sinatuta entregatu beharko dute udal haur-eskoletako jarduera-neurriak onartzen dituen agiria, honako hauek jasoko dituena:
  - PREBENTZIO- eta higiene-neurriak onartzea, COVID-19aren aurrean jarduteko Planean deskribatutakoekin bat datozenak. Neurri horien berri emango zaie familiei, osasun-agintaritzak eskudunak emandako jarraibideen arabera.
  - COVID-19arekin bateragarria den sintomarik ez duela eta COVID-19aren kasu probable edo baieztatu batekin kontaktu esturik ez duela izan adierazten duen adierazpena, eta pertsona zaurgarrientzat izan ditzakeen arriskuak ezagutzen dituela adierazten duena.
  - Osasun-egoera egunero berrikusteko konpromisoa eta ez bertaratzearen arrazoia.
  - SARS-CoV-2k haurrarentzat eta haren bizikidetzaren ingurunearentzat epidemiaren testuinguruan eskolatzeak dakartzan arriskuei eta neurriei buruzko informazioa jaso izanaren baimen informatua.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## HAURTZARO HAUR ESKOLA 2021-22



### 1.2. ZER EGIN GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

1. Familiei jakinarazi eta nabarmendu behar zaie COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonak (laguntzaileak edo adingabeak) ezin direla haur-eskolara joan.
2. Sintomatologia bateragarria duen haur bat detektatzen bada, berehala gainerako adingabeengandik isolatuko da, eta familiari jakinaraziko zaio, jaso dezan. Osasun-agintaritzaren gomendioei jarraituko zaie, eta horrelako kasuak kudeatzeko prozeduraren arabera jardungo da.
3. Langileak COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna edo beste batzuk), EZ du lanpostura joan behar. Sintomak lanpostuan agertzen badira, lantokiko arduradunari jakinaraziko zaio, eta lan-ingurunean kasuak kudeatzeko prozedura hasiko da. Prozedura hori eguneratu ahal izango da pandemiaren bilakaeraren arabera.
4. Eskolan Covid-19 arduradun bat izendatuko da. Arduradun hori zuzendaria izango da, eta bera ez dagoenean beste pertsona bat izendatuko du.

### 1.3. FAMILIEKIN KOMUNIKAZIO ARINA IZATEKO PROZEDURA

Familia-eskola harreman estua sustatu behar da, hezkuntza-komunitate osoaren osasuna bermatzeko. Helburu horrekin, bi aldeek harremanetarako telefonoak eta helbide elektronikoak emango dituzte, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak jasotako jakinarazpenen eta jarraibideen berri emateko konpromisoa hartuko dute.

### 1.4. GUNE ETA MATERIALAREN GARBIKETA

1. Garbitzeko zailenak diren jostailuak edo material didaktikoak kenduko dira.
2. Instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko lanak indartuko dira, ukipen-gainazaletan arreta jarritz: jostailuak, liburuak, atek, komunak, etengailuak, zoruak, etab. Aipamen berezia egingo zaio haur-oihalak aldatu ondoren aldagailuak garbitzeari eta desinfektatzeari.
3. Aireztapen naturala eta behartua erraztuko da ahal den lekuetan, kanpoko klimatologia kontuan hartuta.
4. Eskularruak erabiltzea komeni da elikagaiak manipulatzeko direnean, pixoihalak aldatzeko direnean eta garbiketa-lanak egiten direnean.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## HAURTZARO HAUR ESKOLA 2021-22



## 2. ESKOLAKO ANTOLAMENDU ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO NEURRIAK

2021/2022 ikasturte hasieran, 49 haur matrikulatu dira, lau taldetan: sehaska-gela bat, urte bateko bi eta bi urteko bat.

- 1- Gelak talde egonkorrak izango dira, bi hezitzaileekin. Ahalegina egingo da hezkuntza-bikotearen erreferentziari eusteko, taldeko arduraduna ordezkatu behar den uneetarako.
- 2- Sarrerak eta irteerak tutore bakoitzak bere gelan egingo ditu, eta ezin izango dira beste gela batzuetako haurrekin elkartu. Horregatik, gela bakoitzeko tutore bat 08:00etan hasiko da lanean eta bestea 09:30ean.
- 3- Hezitzaile laguntzaileek beren erreferentzia-gelak izango dituzte.
- 4- Egokitzapen-plan bat egingo da, sarrera mailakatua aurreikusteko, eta horrela pilaketak saihestu.

### 2.1.SARRERAK ETA IRTEERAK

- 1.- Haurrak jasotzeko gune zehatza izendatu eta seinalatuko da, eta kartelak jarriko dira familiei jakinarazteko.
2. Hurrek eskolarako bakarrik diren oinetakoak erabiliko dituzte. Sarreran, kalean erabilitako oinetakoak utzi eta eskolako oinetakoak jantziko dituzte. Gela bakoitzak gune berezi bat izango du aldatzeko.
- 4.Hurrek ezin izango dira eskolara etxeko objektuekin edo jostailuekin joan. Txupeteak edo antzekoak erabiltzen badituzte, eskolan bakarrik erabiliko dituzte. Eskolara ezin izango da janaririk sartu, sehaska-gelan izan ezik.
3. Familia bakoitzak jaka bat ekarriko du eskolan uzteko eta patiora ateratzeko erabiliko da.

### 2.2. BARRUKO ETA KANPOKO GUNEEN ERABILPENA

- 1- Espazioak eta jarduerak taldeak ez batzeko moduan antolatuko dira. Asteko egun bakoitzerako jardueren, espazioen eta taldeen banaketa-taula bat egingo da gune guztiak (psikomotrizitate-gela, plastika, gela) talde batek bakarrik erabil ditzan.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## HAURTZARO HAUR ESKOLA 2021-22



2- Jolastokia eta patioa talde batek bakarrik erabili ahal izango ditu; erabili ondoren beste talde batek baiatu behar badu espazioa, garbituko eta desinfektatuko da.

### 2.3.-JANTOKIA ETA LO-KULUXKA

#### BAZKARIAK

1- Talde bakoitzak bere jantokia antolatuko du:

- Sehaska-gelako umeek bere gelan jango dute
- Urte bateko umeen gela batek erantsitako gelan
- Urte bateko umeen beste gelak lehenengo solairuko gelan
- Bi urteko umeen gelak lehen solairuko jantokian.

2. Jantokietan edo geletan, hezitzaileek eskuak garbituko dituzte otordu bakoitzaren aurretik eta ondoren, eta eskularruak erabiliko dituzte elikagaiak manipulatzeko unean.

3. Bazkariak irauten duen bitartean, ahaleginak egingo dira haurren artean elikagaiak eta mahai-tresnak ez trukatzeko.

4. Janaria orgetan eramango da jantokietako ateraino, eta kanpoan utziko da hezitzaileek har dezaten; azkenean, modu berean jasoko da.

#### LO-KULUXKA

1-Talde bakoitzak bere siesta-espazioa antolatuko du, koltxoneten arteko distantzia mantenduz:

- Sehaska gelako umeek beren gelan egingo dute lo.
- Urte bateko umeen gela batekoek erantsitako gelan egingo dute lo.
- Urte bateko beste gelakoek lehenengo solairuko gelan.
- Bi urteko umeek lehen solairuko siesta gunean, bi espaziotan banatuta.

### 2.4. HEZITZAILEAK

1.- Kalerako arropa eta oinetakoak, eta lanerakoak ezberdinak izan behar dira; eskolan kaleko arroparekin ibiltzea saihestuko da.

2.-Langileen sarrera mailakatua izango da aldagelan pilaketak ez egoteko.

3.-Maskara higienikoak erabiliko dira kontaktuak helduen artekoak direnean, eta FFP2 motako maskarak hurrekiko harremanetan.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## HAURTZARO HAUR ESKOLA 2021-22



4.-Bazkaltzeko txandak egingo ditugu eta espazio desberdinak erabiliko ditugu; , espazio berean ez dira egongo bi hezitzaile baino gehiago batera eta segurtasun-distantzia mantenduko ditugu.

### 3. SUKALDEKO PROTOKOLOA

- 1.- Ezin izango da sukaldetik kanpoko pertsonarik sartu. Sukaldeko suaren kontrako atea itxita egongo da.
- 2.- Salgaien harrera programatu behar da, eta enpresa hornitzaileak zentroan sartzea mugatuko da. Kanpotik datorren lehengaiaren desinfekzioa bermatu behar da, kanpoaldearekin kontaktuan egon bada.
- 3- Zorroztu egingo dira higiene pertsonala eta otorduak egiteko erabiltzen diren tresnak, makinak eta instalazioen garbiketaren neurriak.

### 4. ESKOLATIK KANPOKO PERTSONALA

Jarduera garatzeko funtsezkoak diren langileak bakarrik sartuko dira eskolan; hezkuntza-programak edo ikerketa-proiektuak garatzeko eskolan sartzen den edozein profesionalak, dela ohikotasunez, dela unean-unean, ikastetxean ezarritako segurtasun-neurriak hartuko ditu.

### 5. PRAKTIKETAKO IKASLEAK

- Udal haur-eskoletan praktiketako ikasleak onartu ahal izango dira, baldin eta hartutako prebentzio-neurriek haien jarduera garatzeko aukera ematen badute.
- Praktiketako ikasleei haur-eskolako Kontingentzia Planaren berri emango zaie, eta Kontingentzia Plan hori errespetatu eta haren arabera jarduteko konpromisoa hartuko dute. Gelako tutoreekin eta gela horretako ikasleekin batera, bizikidetza-talde egonkor batean egongo da.

### 6. UDAL-PLANTILLA

Udal intranetean langile ororentzat argitaratutako arau orokorrak jarraitzea gomendatzen da.